

Bernardó Atxagari erantzunez

Agur Bernardo:

Dagoeneko ez bahekiek bederen, eta gaur barrena sartu aitzin, edozein idazleri bizkorgarri gertatzen zaion berri bat jakin eraziko diat gaur: hiru izkribuak eta iritziak kontutan hartuak izaten direla, gazteen artean batez ere. Eta, bide bereetik hain zuzen, askotako bide gaituk Eibarren hik esan, eta biharamonean EGINen irakurri, ditugunok (Urtarilaren 2ko alean, 25 orr.).

Hots, barka ezak, zenbait puntuak erantzun bat merezi duela uste diat. Zehazkiago mintzatzekotan, behar ere duela esango niake. Eta inolaz ere ikutu dituan arazo larriak pertsona honengan edo harengan «nortu» nahi izan ez arren, jator erantzungo diat orrialde beretan, neure iritziak argi eta garbi jarritz. Eta halaz ere gure arteko diskidantza lehengoan geldituko den esperantzaz.

Hik heuk, idazle «abangoardista» izan nahi duk. Bejondiala! Adinez eta dohainez, ongi egin dezakek. «Ne perdez jamais votre capacité de contestation» aholkatu zican Sartre-k 1.968eko ikasle iraultzailei.

Euskal kulturaren alorrean dagoen «gezurra» salatzeako behar sentitzen duk hik aspaldidunik. Eta hik, nola ez, toka dakizkidakeen tximpartak jasateko gertu, txalo jotzen diat.

Hire izkribu batzu (ez denak, zoritxarrez) irakurri ondoren, bangoardismoaren ikurra eramateko gaitasuna somatuz, idazle batengan beharrezkotzat jotzen ditudan sendikortasuna eta ikutua aurkitu uste dizkiat. Orain dela hilabete batzu «La Voz»-en azaldu huen idazle-projektua ere, oso serioa eta oso aintzatzotzat hartzeko iruditu zitzaizkidan. Hik zerbait egin nahi duk lumaren alorrean, eta ez duk denbora-paxa hutsen idazten. Pozgarria duk, benetan.

Eta horregatik ere uste diat Eibarko hire iritzi batzu oso kaltegarri gerta daitezkeela euskal kulturaren alorrean, edo gaizki konpreni daitezkeela; edo-ta horixe esan nahi bahuen (eta nork ukatuko liake horrela pentsatzeko eskubide osoa?), beharrezkoa dela gure alor murriz horretan «un autre son de cloche» ere entzun eraztea. Nik asperrira esango diat hemen, bestalde, beste batzuk agian izukutan hitaz darasatena.

* * *

Euskal kulturaren alorrean (eta euskal munduan hobeki; eta «euskal» hitza gabe ere, berdintsu) mukurru dagoen «gezurra» salatzeako mementua dela diok. Eta egia duk. Gure mundutxo honetan dauden azpijokoa, taldekeria eta entxufismoa guztiz dituk nabarmen eta lotsagalduek. Xehetasunetan sartu beharrik ez dagoela uste diat. Baina, barka, Bernardo: hiri edozertan «klabe politikoa» somatzea atsegin ez bazaik ere, oso gauza nabarmena eta ezaguna duk noren faboretan eta noren kaltetan gertatzen diren. Eta izenak bi zerrendatan jar-tzen badira, kristoren hermeneutikatan sartu gabe, hauxe duk kakoa: politikoa. Eta hau ukatzea barragarria huke.

Euskara Batua vs. Euskalkiak auzia (Eibarko egunetan ara

katu dena). Literaturgintzari buruz, «sub-problema» iruditzen zaik hiri. Eta niri ere bai. Baina gaur euskalkiz idaztea, atzerakoikeria duk, eta ez inolako abangoardismoa. Edozein literaturatan, eta ez gurean bakarrik, hizkera «standar» edo Batua duk egungo problematika biltzen duen literatura munitzeko ezinbesteko tresna; eta ez Bonapartek sailkatutako 26 hizkerak, eta are gutxiago 26 hauetako bakar bat. Abangoardista batek, hitz batez, 1985an, Batua idatzi behar dik, monotonoki ala pluritonoki. Eta nahiz eta, elkarrizketetan edo egoera berezitan, euskalkiez, are idiolektuez ere, baliatzea oso komenigarri izan badaiteke ere.

Beharrezkotzat daukan literatur-«teknika» horretan, beraz, nik neuk hizkuntzaren menderatzea jarriko niake lehenengo lerroan: aditza, deklinabidea, ortografia. Uste duk hik ondoko idazkera hau, adibidez, Vargas Llosa-ren luman irakur daitekeenik? «Hentontzes yegó el kolonel, i me dejó: ballate de aki».

* * *

Hain zuzen ere, «inspirazioa» bera ere baino beharrezkoago iruditzen zaik hiri «teknika» delakoa. Baina edozein teknikaren oinarrian, datzekion zientzia zegok. Eta, nire ustez, Fisika bakarra da, baina Literatura ez; oso literatur-projektu desberdinak daudelako. Oso literatur-kritika desberdinak dauden bezala.

«Maitasun poemarik gehienak gezurra» direla esatea, egia duk segur aski: maitasuntzat hartzen diren harremanik gehienak «ligue» baizik ez diren bezalaxe. Baina maitasun-giroa, bai gizonarengan bai emakumearengan, eta gizadia pertsona osatua deno, gauditu ezinezko esperientzia izango duk. Idazle batek ez zeukak, beraz, bere burua eta bere idazlana alor horretatik at jartzetik; nahiz gero sekulako «porruak» idatzi. Oso karrozatatzeko joko bako ere: «Casablanca» eta «Un homme et une femme» filmak, antzeko alor horretan, filme hilezkorrak dituk. Eta denok zekiagu zergatik.

* * *

Euskaldunekin, berriz, erabat aspertuta hago: eta «dibortzioaren ertzean» omen oso maiz. Beste batzu, berriz, aspaldi di-

hortziatu gutian euskaldunen etsaengandik. Eta nik gauza bat espero diat bigandik: gurekiko «dibortzio» hori sekula ez burutzea. Beti hiru aburukide ez izanik ere, eukaraz nahi diat «Atxaga», gero eta maizago. Gainera, pentsatu al duk «dibortzio»aren ondoko prentsa-dei honetan?: «El conocido escritor norteño B. Peñascal presentará mañana en el Salón de los Cascajales Altos, de Madrid, bajo la Presidencia del Sr. R. Guerra Garrido, su nueva colección de cuentos: «Sucedidos cantabros»...

Herorrek esan duk, gainera, tristoranik gabe, agian: «ezinbestez naiz euskalduna». Hik heurea egin behar duk. Cortázar-ek Japonon gorabeherak azaldu balitu, eta Mishima-k Argentinakoak, ondo jaiotak gintuzkek!

Honek, hain zuzen, García Márquez-en esanetara nararak: «El escritor que no trabaja sobre su propia realidad y con sus propias experiencias, es un escritor que se equivoca. Todo lo que yo he escrito tiene una base real. Porque si no, estaríamos frente a una fantasía. Y para mí la fantasía es Walt Disney; y eso no me ha interesado nunca en absoluto».

* * *

Hortaz, nola esan dezakek hik ez haizela «abertzalea» eta «ez-abertzalea ere ez»; eta, gainera, «hori» ez zaila asko inportatza? Ez omen diagu hire esaldi hori «klabe politikoa»-ren araueru ulertu behar, «beste klabe baten baizik». Zein da klabe edo giltzari hori? Nik ez baitut ikusten, eta nire ondoan daudenek ere ez. (Gobernadoreak ere ez zekik; baina oso pozik jarri omen duk). Sasi-abertzaleei buruz ari bahaiz, esan ezak garbi.

Bestela bazirudik abertzale vs. ez-abertzale dikotomia hori epifenomenotzat hartzen duala. Hala ere, epifenomeno axial horrek hamaika pertsona eraman dik jadanik gartzelara, deserrira eta kanposantuetako hilobi hotzetara; eta beste hamaika abertzalaren biziera (neronena barne) baldintzatu eta mugatu dik erotik. Hori bakarrik ez: oraintxe bukatu den 1984 horretan, ia 2.000 abertzale pasa dituk komisariatetik, eta ez gutxitan tortura latzetatik. Hala ere, hire hitzak dirudien bezala ulertuz gero, hori ez duk hire

arazoa; eta ez haiz orandik ez «abertzalea», eta ez «ez-abertzalea». Alajainkoa! «Abertzale» asko egoteak ez naiz ni zalantza horretara eramane.

Graham Greene-k, adibidez, ez liake hire iritzi hori konprenituko. Gai horietaz gaur idazten ausartzen ez bada ere, eta azkeneko urte hauetan sandinisten alde agertzen ari delako, honelako zerbait galdetu ziotean orain dela gutxi: «nola uler daiteke zu, kristaua izanik, eta zeure adinean, sandinisten alde agertzen ari delako, honelako zerbait galdetu ziotean orain dela gutxi: «nola uler daiteke zu, kristaua izanik, eta zeure adinean, sandinisten alde agertu duk argi-eta-garbi. Herri txiki horiek amerikar inperialismoari kontra egiteak, bihotzeraino hunkitu dik.

Baina mende luze eta odoltsu honetan herorren herri txiki honek daraman borroka miresgarriak, hotz uzten hau hi: «abertzaleek ez baitute ezer egin Euskal Herriaren alde, edo oso gutxi» (hire hitzak dituk, ez nireak). Nork eman du, hortaz, bere odola eta bere bizi osoa herri honen alde? Marte-tarrek? Ikurrina aurretik sasi-abertzale pilo bat ikusten dugula esan bahu, ados gintuzkek, Baina hor, nire ustez, gaizki azaldu dituk heure ideiak; eta herri honetako onenak mundu dituk.

* * *

Gainera, herorrek ere esana, higuinaria duk herri honetan dagoen hertsikeria: «nik irakurtzen ditudan idazle amerikanoek esaten dute «las de Dios» amerikarren kontra, eta ez ezer gertatzen». Baina («le petit détail») amerikarrak ez zeudek desagertzeko zorian; eta kale-baztarretan ez dizkiate egunero niponar aviak etengabe topatzen. Non daude gure monopolioak, gure dolarrak, gure armadak, «Pershing»-atomikoak, gue koloniak? Amerikatar idazleek eta euskal idazleok guztiz desberdinku idatzi behar diagu. Kolore bera eskatzea iruditzen zaidak azken deskalabroa. Chomsky-k amerika-

tar inperialismoa salatzen duenean, hemen G.A.L. salatu behar duk, eta gure herriaren zapalketa. Horra hor simetria bakarra.

Hain zuzen ere, ia-ia hiru hitz berberak erabili dizkik arazo honetaz Robbes-Grillet-ek (behinola «nouveau roman» teknokratikoaren aita saildu izandakoak) azkeneko elkarrizketan (ikus «magazine Littéraire», 214, 1.985eko Rurt, 88 orr.). Brest-en sortutako Robbes-Grillet britoina, «erdaldun» duk, gure modura esateko: eta Breitainiako nazio-borrokaz lufitzen duk.

Hots, argi-eta-garbi aitortu dik R. Grillet-ek berri «Alemaniara joan zenean senditu zela lehenengo aldiz lurralde arrotzean». Nahiz gazte denboran sei urte Parisen pasatut izan... Hots, R. Grillet «nazien aldeko izan zuan, petanista ere bai, eta azkeneko urteetan, «je découvre que je suis fait pour être un écrivain, c'est-à-dire quelqu'un qui ne se situe que dans les marges de l'idéologie»... Gauzak garbi behintzat. Baina herri zapalduaren aldeko joera ez duk ideologia. Jakina: Pilatosek ideologiatetik at egor nahi zian eskuak garbitu zituenan...

* * *

Hire esanak eta Robbes-Grillet-enak ia batera egun hauetan irakurtuta, idazle at bide zegok, «venia» bide dik nonbait, zeru aratzean moztuz bide duk, ez bide dizkik eskuak zikindu nahi, «Apolitikoa», badakik. Ezin diat sinetsi hi honetan hagoenik.

Aspaldiko eztabaidetara garramatzak honek gaitziki. Eta nik nabago diat Sartre-ren ikuspuntua (irakur, batez ere, 1.948an hark idatzi zuen «Qu'est-ce que la littérature? fatmatua); edo gure Unamunok gupidarik gabe maiseatzen zituen «escritores de escoplo y lagra» delako artis a orbanabeak. Idazleak ez dik «venia»-rik. Nik esango diat nork duen «venia» hori betidanik: jauntxoek, burgesek eta señoritoek.

Hik, Bernardo (zergatik ez Beñat, edo Bernard bederen?), Euskal Herriko irakurleentzat idazten duk aurren aurretik; nik bezala (izkutuki bai: «Allende el Viento» gaizki sal-tzen ari omen duk; txarra delako, noski, baina...), eta herri mundu horretan, zernahiz idaztirik ere (eta moir ez duk ni baino jebismoaren etsaingo), zapalduen zerbizutan idatziko al dugu, funtsean: ala zapaltzailecan? Nahiago diat J. M. Arguedas eta M. O'Caddhain-en jokabidea, Camas eta Joycerena baino. Nik ez zekiat Franchok ahots ederra zuenez, edo-ta Neronek begi politik zituenaz. Obra eta egilea berezitan hastea oso arriskugarri iruditzen zaidak.

García Márquez kolonbiarrak, sinbolo garbi bat erantsi nahiz, Managua-ra joan duk Daniel Ortega besarkatzaera. Ni neu ere pozik joango ninduan. Eta hik? Nork bere bidea.

Baina, otoi: garrazki esandakoak barka; eta gogaide ez izanik ere, gauden adiskide eta gauden euskaldun.

TXILLARDEGI

